# Editorial

Aurten, 2019an, 30 urte bete dira Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa (EZKO) –aldizkari honen argitaratzailea– sortu zenetik, Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen babespean (Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzkoa).

Efemeridea ospatzeko eta organoaren jarduera atzera begira ebaluatu, haren egoera aztertu eta etorkizuneko erronkei eta itxaropenei buruz gogoeta egiteko, jardunaldi bat egin zen Donostian, uztailaren 19an, **Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan, "EZKO: 30 urteko zerga-harmonizazioa Euskadin"** izenburupean. Ikastaroan, errepasoa egin zitzaion EZKOren lanaren iragan, orain eta etorkizunari. Horretarako, Euskadiko zerga-eremuko koordinazio-, harmonizazio- eta lankidetza-agertokian aktore nagusi izan direnek parte hartu zuten: hasieran protagonistak izan zirenak, lehenengo urteen ostean aritu zirenak, ondorengo garapenean parte hartu dutenak eta gaur egun erakundearteko organo horretan lan egiten dutenak.

Oso interesgarria izango da jardunaldian parte hartu dutenen aurkezpenak izatea, izan ere, sakonki eta irizpidez jorratu zituzten hauek: i) EZKOren balantzea, ii) harmonizazio fiskalaren sistemaren printzipioak, iii) harmonizazioaren eta foru-eskumenaren arteko oreka eta iv) erronka berriak koordinazio eta harmonizazio fiskalean. Esparru honetan hobekuntzak gida ditzaketen ekarpen eta proposamen baliotsuak izan ziren.

Este año 2019 se cumplen 30 años desde que en el marco de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, del Parlamento Vasco se crease el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE), editor de esta revista.

Para celebrar la efeméride y, con objeto de valorar de forma retrospectiva su actividad, analizar su estado de situación y reflexionar sobre los retos y expectativas de futuro de este órgano, el pasado 19 de julio se organizó una **jornada en los Cursos de Verano de la Universidad el País Vasco**, en Donostia-San Sebastián, en la que bajo el título **"OCTE: 30 años de armonización fiscal en Euskadi"**, se realizó un recorrido sucesivo por el pasado, el presente y el futuro de la labor del OCTE, contándose con la participación de los principales actores en el escenario de la coordinación, armonización y colaboración en el ámbito tributario en Euskadi; quienes fueron protagonistas en los inicios, tras los primeros años de su creación, quienes han participado posteriormente en su desarrollo y quienes trabajan hoy en este órgano interinstitucional.

Será sumamente interesante disponer de las ponencias de quienes intervinieron en la jornada, porque abordaron en profundidad y con criterio: i) el balance del OCTE, ii) los principios del sistema de armonización fiscal, iii) el equilibrio entre la armonización y la competencia foral y iv) los nuevos retos en la coordinación y armonización fiscal. Hubo aportaciones y propuestas valiosas que podrían orientar mejoras en este ámbito y, aunque

Ikuspuntu ezberdinak aurkeztu eta kontrastatu baziren ere, EZKOk urte hauetan guztietan egindako jardunaren balorazio orokor positiboa egin zen, funtsean harmonizatuta duden foru-aldundietako zerga-sistemak zehazten lagundu duen funtsezko elementu gisa. Konpromisoa hartzen dugu hemen, *Zergak* aldizkaria, hurrengo zenbakietan, hitzaldi horiek zabaltzeko plataforma izan dadin, behin argitaratu ondoren.

EZKOren urteurreneko jardunaldian agertu zen bezala, erakundearteko organo horretan modu koordinatuan ehundu dira azken 30 urteotako erreforma fiskal nagusiak, eta, lehen esan dugun bezala, foru-sistema tributario funtsean harmonizatuak taxutu dituzte. Hori da gaur egun EZKOren lehentasunezko jarduera-ildoetako bat; izan ere, 2019ko lehen seihilekoan zehar, lanean aritu da zenbait eremuri aplikatu beharreko tratamendu fiskala aztertzen eta berrikusten, eremu horiei eguneratzeko edo eraberritzeko moduko iritzi baitzaie *a priori*. Bereziki, garrantzi handiko gaiak sartzen ari dira azken hilabeteetako EZKOren saioen gai-zerrendan, hala nola EAEn **aurreikuspen sozial osagarria BGAEen bidez orokortzeko balizko neurri fiskalak,** eta etxebizitzaren politika fiskala berrikustea. Bigarren gaiari dagokionez, *Zergak* aldizkariaren zenbaki honen “Erreferentziak” atalean, “Intereseko Dokumentuak” izeneko espazioaren barruan, **“Etxebizitza politika fiskalaren orientazio berria”** txostena jasotzen da, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak Eusko Legebiltzarrari bidalitako bertsioan, aurretiaz EZKOri aurkeztu zitzaiona.

Gaia aldatuz, eta aldizkariaren azken zenbakien ildo editorialari jarraiki, zerga-iruzurra borrokatzeko erakunde-lankidetzaren esparruan, berriz azpimarratzen dugu aurrerapausoak egin direla urte anitzeko baterako proiektuetako batean, proiektuok funtsezkoak baitira prebentzio-estrategien arloan: tributu- edo **zerga-hezkuntzaz** ari gara, kontzientziazio fiskal handiagoa sustatu nahi du-eta, haurrengandik hasita, hezkuntza-inguruan. «Intereseko dokumentuak» atalean,

se expusieron y contrastaron diferentes puntos de vista, destacó una valoración general positiva de la actividad del OCTE a lo largo de estos años como elemento clave que ha contribuido a perfilar unos sistemas tributarios forales esencialmente armonizados. Desde aquí nos comprometemos a que en próximos números, la revista Zergak sirva de plataforma para la difusión de esas ponencias, una vez sean editadas.

Como se puso de manifiesto durante la jornada aniversario del OCTE, en el seno de este órgano interinstitucional se han venido fraguando de forma coordinada desde hace 30 años las principales reformas fiscales que, reiteramos, han perfilado unos sistemas tributarios forales esencialmente armonizados. Esta sigue siendo, también hoy, una de las líneas de actuación prioritarias del OCTE que, de hecho a lo largo del primer semestre de 2019 ha venido trabajando en el análisis y la revisión del tratamiento fiscal aplicable a diversos ámbitos que a priori se estima conveniente actualizar o reformar. En particular, vienen siendo incluidos en el orden del día de las sesiones del OCTE de los últimos meses asuntos de gran calado como son las eventuales **medidas fiscales para generalizar la previsión social complementaria en Euskadi a través de las EPSV** y la revisión de la política fiscal de vivienda. Respecto a esta segunda cuestión, en la sección de “Referencias” de este número de Zergak, dentro del espacio dedicado a “Documentos de Interés”, se incluye el Informe sobre **“Nueva orientación de la política fiscal de vivienda”**, en la versión remitida por el Departamento competente del Gobierno Vasco al Parlamento Vasco, que previamente había sido presentado en el OCTE.

En otro orden de cosas, y como continuación de una línea editorial que ha caracterizado los últimos números de la revista, en el ámbito de la colaboración institucional en la lucha contra el fraude fiscal, volvemos a destacar los avances en uno de los proyectos plurianuales conjuntos que son clave en el área de las estrategias preventivas, el de **educación tributaria**, que trata de promover una mayor concienciación fiscal desde una edad temprana, en el entorno

berriro nabarmentzen da, esteka edo lotura espezifiko baten bidez, zerga-hezkuntzako gunera sartzeko bidea, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean baitago. Programaren informazio eguneratua dauka, eta haren bitartez irits gaitezke, era berean, hiru foru-ogasunetako bakoitzak ekonomiari eta zerga-sistemari buruz prestatu duen unitate didaktikora. Unitate didaktiko horietan oinarritzen da ikastetxeetan ematen den programa.

Zerga-hezkuntzaren proiektua ezartzeko baterako izaera eta baldintzak honelaxe erabaki ziren: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek hitzarmena sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezartzen duen hezkuntza-programa garatzeko. Hitzarmena 2017ko uztailaren 7an sinatu zen, eta jarraian luzatu zen beste hiru ikasturtetarako, 2021era arte, proiektuari egonkortasuna emateko. Erakundearteko akordioaren barruan, laguntza-zerbitzuetarako kontratu bat formalizatu zen 2018ko bigarren seihilekoan, programa ezartzeko. 2019ko lehen seihilekoan zehar, 2018/2019 ikasturteari dagokion programa garatu eta arrakastaz osatu da, eta 5.379 ikasleri 165 ikastetxetan eman zaie. Era berean, maiatzetik aurrera, 2019/2020 ikasturteko programaren zabalkunde-jarduerak hasiko dira, matrikulazio-tasak hobetzeko eta jarraitutasun-bokazioa duen proiektua finkatzeko.

Prebentzioaren alorreko bigarren proiektu gakoa, baterakoa eta urte anitzekoa hura ere, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak iruzurraren aurkako batzordean adostua, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsonen edo entitateen zergak kontrolatzeko sistema integralak ezartzean datza

educativo. En la sección de “Documentos de interés”, se destaca nuevamente el acceso, mediante enlace específico, al área de educación tributaria en la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, en el que se contiene información actualizada del programa y a través del cual se direcciona a su vez a los enlaces que dan acceso a las unidades didácticas sobre economía y fiscalidad de cada una de las tres Haciendas Forales. En dichas unidades didácticas se fundamenta el programa impartido en los centros escolares.

El carácter conjunto y las condiciones para la implantación del proyecto de educación tributaria se acordaron mediante el “Convenio entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la Comunidad Autónoma de Euskadi”. El convenio se suscribió el 7 de julio de 2017 y fue prorrogado posteriormente para su continuidad durante otros tres cursos escolares, hasta 2021 con el fin de dar estabilidad al proyecto. En el marco de dicho convenio interinstitucional, en el segundo semestre de 2018 se formalizó un contrato de servicios de apoyo para la implantación del programa. Durante el primer semestre de 2019 se ha desarrollado y se ha ultimado con éxito el programa correspondiente al curso 2018/2019, impartiéndose en 165 centros escolares a un alumnado de 5.379 personas. Asimismo, a partir del mes de mayo se iniciaron las actuaciones de difusión del programa del próximo curso 2019/2020 con el objetivo de mejorar los índices de inscripción y consolidar un proyecto que tiene vocación de continuidad.

El segundo proyecto clave incardinado entre las actuaciones de orden preventivo, también de carácter conjunto y plurianual, acordado por las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco en el seno de la Comisión de Lucha contra el Fraude es el dirigido a la implantación de sistemas de control integral de la tributación de las personas o entidades que desarrollan actividades económicas.

**TicketBAI proiektuaz** ari gara, xedetzat baitu jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta erakunde guztiek euren salmenta-eragiketa guztiak aitortzen dituztela bermatzea. Inguruko herrialdeek esparru horretan duten esperientzian oinarritzen da, eta bat egiten du Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) 2013. eta 2017. urteetako txostenetako gomendioekin («Salmenten ezabatze elektronikoa: zerga-sarrerentzako mehatxua» eta «Ihes eta iruzur fiskalari aurre egiteko bitarteko teknologikoak», hurrenez hurren), zeinei gehitu behar diegu 2019ko martxoaren 28an argitaratutako txosten berriena, "Implementing Online Cash Registers: Benefits, Considerations and Guidance" izenburua duena.

Urte anitzeko proiektu honen esparruan aztertzen da betebehar juridiko eta teknikoak ezartzea zerga-administrazioak jarduera ekonomikoen diru-sarrerak kontrolatzea ahalbidetzeko, eta, bereziki, diru-sarrerok ezkutatzeko joera duten sektoretako jarduerak kontrolatu ahal izateko, ondasunak edo zerbitzuak azken kontsumitzaileei entregatzen dizkiete, gehienetan esku-dirutan ordainduta.

2018. urtean, proiektua garatzeko osatu zen erakundearteko lantaldea (foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak osatua) TicketBAI kontrol-sistemak izan beharreko zehaztapenak finkatzen aritu zen, eta zenbait kontzeptu-proba egin zituen, egungo sistema eragile informatiko desberdinetan behar bezala dabilela egiaztatu, eta neutraltasun teknologikoa ziurtatzeko.

Era berean, "IoT" teknologiaren esparruan (gauzen Internet edo *Internet of Things*), TicketBAI sistemak bitartekoak eskaintzen ditu fakturazio-gailuek ematen dituzten jatorrizko salmenta-erregistroak gorde eta Zerga Administrazioari jakinaraztea ziurtatzeko, azken kontsumitzaileei egin zaizkien egoera berean eta eduki berarekin.

Se trata del **proyecto denominado "TicketBAI"** que, inspirado en la experiencia de los países de nuestro entorno en este ámbito y de acuerdo con las recomendaciones contenidas en los informes de la OCDE de los años 2013 y 2017 de títulos "Supresión electrónica de ventas: una amenaza para los ingresos fiscales" y "Herramientas tecnológicas para abordar la evasión fiscal y el fraude fiscal", respectivamente, (a los cuales debemos añadir el informe más reciente publicado con fecha 28 de marzo de 2019, de título "Implementing Online Cash Registers: Benefits, Considerations and Guidance") tiene por objeto asegurar la declaración de todas las operaciones de venta realizadas por las personas y entidades que desarrollan actividades económicas.

En el marco de este proyecto plurianual se estudia el establecimiento de una serie de obligaciones legales y técnicas que permitan a la Administración tributaria el control de los ingresos de las actividades económicas y, en especial, de aquellas actividades enmarcadas en sectores proclives a la ocultación de los mismos en la medida que realizan entregas de bienes o prestaciones de servicios a las y los consumidores finales, cobrados en gran medida en efectivo.

En el año 2018, el grupo de trabajo interinstitucional que se constituyó para el desarrollo del proyecto, con participación de las Diputaciones Forales, el Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra, trabajó en la definición de las especificaciones técnicas que debe cumplir el sistema de control "TicketBAI" y realizó varias pruebas de concepto dirigidas a comprobar su correcto funcionamiento en los diferentes sistemas operativos informáticos existentes en la actualidad, con el fin de asegurar su neutralidad tecnológica.

Asimismo, en el marco de la tecnología "IoT", Internet de las cosas o Internet of Things, el sistema "TicketBAI" implanta medios que aseguran la conservación y comunicación a la Administración tributaria de los registros originales de venta expedidos por los dispositivos de facturación, es decir, en el mismo estado y con el mismo contenido con el que se emitieron al colectivo de consumidores finales.

2019. urtean zehar, hitzarmen bat sinatu da, proiektu bateratuan erakundeen arteko lankidetza formalizatzeko eta erakundeen partaidetza-araubidea arautzeko, proiektuaren antolaketari, diseinuari, garapenari, exekuzioari eta finantzaketari dagokienez (“Intereseko Dokumentuak” atalean), eta aurreikusten da kontrol-sistema hori ezartzeko araudi-proposamenak eta funtzionamenduaren probak amaitzea; bereziki, proba pilotua eginda, zehaztapen horiek fakturazioko informatika-prozesuetan inplementatzeko

Durante el año 2019 se ha suscrito un convenio para formalizar la colaboración interinstitucional en el proyecto conjunto y regular el régimen de participación de las instituciones en relación con la organización, diseño, desarrollo, ejecución y financiación del mismo (se reproduce en la sección de “Documentos de Interés”) y está previsto que se ultimen las propuestas normativas de implantación de este sistema de control y las pruebas de su funcionamiento, en particular, mediante la realización de una prueba piloto de implementación de estas especificaciones en los procesos informáticos de facturación.

Proba pilotua Bilbon aurkeztu zen 2019ko apirilaren 11n eta garapen-fasean dago, eta horren ondorioak eta emaitzak urte osoan ebaluatzea aurreikusita dago. Aipatutako aurkezpenean azaldu zenez, TicketBAI soluzioak fakturazio-sistemek bete behar dituzten eskakizun funtzionalak eta teknikoak ezartzen ditu, igorritako fakturen osotasuna eta identifikazioa bermatuta, eta, hala badagokio, dagozkien erantzukizunak zehazteko aukera emango du.

La prueba piloto se presentó en Bilbao el 11 de abril de 2019 y se encuentra en fase de desarrollo, estando prevista su conclusión y evaluación de resultados a lo largo de este año. Tal como se divulgó en la referida presentación, la solución TicketBAI establece los requisitos funcionales y técnicos que deberán cumplir los sistemas de facturación, garantizando la integridad e identificación de las facturas emitidas y en su caso permitirá determinar las responsabilidades que correspondan.

Iritzi zaio ezen, kontrol- edo soluzio-sistema aukeratzerakoan, oreka ezin hobea lortu behar dela balio hauen artean:

- Segurtasuna: Zergadunek salmenta-eragiketak manipulatu edo zerga-administrazioari ezkutatzeko duten zailtasuna.

- Malgutasuna: Soluzioa merkatuko fakturazio-sistema mota desberdinetara egokitzeko aukera: kutxa erregistratzaileak, salmenta-terminalak, ordenagailu pertsonalak, faktura sinplifikatuak jaulkitzen dituzten balantzak edo beste sistema batzuk.

- Soluzioa ezartzearen kostua: Enpresaburuek eta profesionalek ordaindu behar duten kostua batez ere, baita administrazioak berak sistema ezartzeko ordaindu beharreko kostua ere.

Horrez gain, honako alderdi hauek ere kontuan hartu behar dira:

Se ha considerado que, en la elección del sistema de control o solución, deberá alcanzarse un equilibrio óptimo entre los siguientes valores:

- Seguridad: La dificultad de los contribuyentes para manipular u ocultar sus operaciones de venta a la Administración tributaria.

- Flexibilidad: Posibilidad de que la solución se adapte a los diferentes tipos de sistemas de facturación existentes en el mercado: cajas registradoras, terminales puntos de ventas, ordenadores personales, balanzas que expidan facturas simplificadas u otros sistemas.

- Coste de implantación de la solución: Medido fundamentalmente en el coste que deben cubrir los empresarios y profesionales, pero también en el coste de implantación del sistema por la propia Administración.

Además, deben tomarse en consideración aspectos como:

- Epe luzeko ikuspegia: Ezarritako sistema etorkizunean gertatuko diren araudi- eta teknologia-aldaketei ahalik eta kostu txikienarekin eguneratzeko aukera.

- Zerga-administrazioek iruzurrari aurre egiteko hartutako estrategia globala osatzen duten gainerako neurriei egokitzea: Neurria erraz doitzea iruzurraren aurkako beste neurri batzuekin, eta bereziki BEZa kudeatzeko sistemarekin, berehalako informazio-hornikuntzan oinarritutakoa bera.

TicketBAI soluzioarekin aurreikusten diren ondorio garrantzitsuak ere nabarmentzen dira:

- Herritarrek zerga-administrazioarekin duten harremanen aldaketa. Hobetsitako soluzioak beste urrats bat izan behar du zerga-administrazioarekiko harremanaren aldaketak, zenbait ikuspegitatik:

  - o Teknologia berriak erabiliz herritarrei elkarlana erraztea zerga-iruzurraren aurkako borrokan, salaketak aurkezteko aukera emanez.

  - o Etorkizunean aukera izatea betebehar formalak murrizteko, zerga-administrazioak zergak likidatzeko proposamenak prestatzeko.

“Zergak gaur egun” atalean zehatz-mehatz adierazita dago foru-erakundeek, aldizkari honen errefentzia-aldian (2018ko abendua-2019ko ekaina), zer jarduera izan duten zerga alorreko araugintzan. Halaber, foru-aldundietako zerga-araudiaren edo zerga-politikaren zerbitzuek gaurkotasunagatik edo esanahi bereziagatik nabarmendu dituzten xedapen batzuen iruzkina ere egin da. Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Zerga Koordinaziorako Organoak emana zuen jada xedapen horietako batzuei buruzko txostena, artean proiektu-fasean zeude-

- Visión a largo plazo: Posibilidad de que el sistema que se adopte se puede actualizar con el menor coste posible a los cambios normativos y tecnológicos que se vayan produciendo en el futuro.

- Adecuación con las demás medidas que conformen la estrategia global de lucha contra el fraude que se adapten por las Administraciones tributarias: Facilidad de encaje de la medida con otras medidas de lucha contra el fraude que se adapten y en concreto con el sistema de gestión del IVA basado en el Suministro Inmediato de Información (SII).

Se apuntan asimismo, los siguientes efectos relevantes que se prevén con la solución TicketBAI:

- Cambio de la relación de la ciudadanía con la Administración tributaria. La solución que se adopte debe ser un paso más en el cambio de la relación con la Administración tributaria desde varios puntos de vista:

  - o Facilitar, con la utilización de las nuevas tecnologías, la colaboración de la ciudadanía en la lucha contra el fraude fiscal mediante la posibilidad de que se interpongan denuncias.

  - o Permitir en el futuro disminuir las obligaciones formales, la confección de propuestas de liquidación de impuestos por la Administración tributaria.

La actividad normativa de las instituciones forales en materia tributaria durante el periodo de referencia de esta revista (diciembre 2018 – junio 2019) se relaciona de forma exhaustiva en la sección de “Actualidad Fiscal”, junto con el comentario de una selección de disposiciones que los Servicios de Normativa Tributaria o de Política Fiscal de las Diputaciones Forales han destacado por su actualidad o por su especial significación. De acuerdo con lo establecido en el artículo 11 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal, parte de estas disposiciones ya habían sido informadas previamente, en fase de proyecto,

la. Zenbait aldaketa onartu dira zerga-sistema foraletan, hala arauetan nola erregelamenduetan, eta zerga gehienei eragin diete: batetik, foru-erakundeen araugintza-eskumenaren mende daudenei, eta, bestetik, Ekonomia Itunaren arabera Estatuaren arauen arabera zuzendu beharreko zergei.

Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzako langileek prestatutako Europar Batasuneko zerga-albisteen kronikak 2019ko lehen seihilekoan gertatutako zerga-gairik garrantzitsuenen berri ematen du, bederatzi atal handitan egituratuta, eduki honekin:

1. Sarrera
    1.1. Errumaniaren lehendakaritza: 2019ko urtarrilaren 1a – ekainaren 30a
    1.2. Erreforma EBk zergen gainean erabakiak hartzeko eran
2. Sozietateen fiskalitatea
    2.1. Sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komuna
    2.2. Jokabide-kodea izeneko taldea sozietateen gaineko zergari buruz
    2.3. Ekonomia digitalaren fiskalitatea
3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga
    3.1. BEZaren behin betiko sistema
    3.2. BEZ-moten aldaketa.
    3.3. Merkataritza elektronikoaren BEZa
    3.4. BEZaren zerga-bilketa egiteko beharrezko ordainketei buruzko informazioaren derrigorrezko transmisioa eta informazio-trukea
    3.5. Enpresa txikientzako BEZaren arauak sinplifikatzea
    3.6. Europar Batasunaren eta Norvegiaren arteko hitzarmenak ezarritako batzorde mistoa. Hitzarmenaren edukia: administrazio-lankidetza, iruzurraren aurkako borroka eta kredituak kobratzea BEZaren esparruan
4. Zerga bereziak
    4.1. Alkoholaren eta edari alkoholdunen gaineko zerga bereziak
    4.2. Zerga bereziak EBren defentsarako ahaleginari dagokionez

por el Órgano de Coordinación Tributaria. Se han aprobado cambios diversos en los sistemas tributarios forales, tanto de rango normativo como reglamentario, que han afectado a la mayor parte de los impuestos: a aquellos sobre los que se dispone de competencia normativa y por tanto discrecionalidad para su regulación, y también a aquellos otros tributos que, según regula el Concierto Económico, han de regirse por las normas establecidas por el Estado.

La crónica de la actualidad fiscal en la Unión Europea que elabora el personal de la Delegación de Euskadi en Bruselas da cuenta de lo más significativo en materia de fiscalidad acontecido durante el primer semestre de 2019, estructurándose en nueve grandes apartados con el siguiente contenido:

1. Introducción
    1.1. Presidencia de Rumanía: 1 enero – 30 junio 2019
    1.2. Reforma en la toma de decisiones de la UE sobre fiscalidad
2. Fiscalidad de las sociedades
    2.1. Una base imponible común del impuesto sobre sociedades
    2.2. Grupo Código de Conducta sobre la fiscalidad de las empresas
    2.3. Fiscalidad de la economía digital
3. Impuesto sobre el Valor Añadido
    3.1. Sistema definitivo del IVA
    3.2. Reforma de los tipos de IVA
    3.3. El IVA del comercio electrónico
    3.4. Transmisión obligatoria e intercambio de información sobre pagos pertinentes a efectos de recaudación del IVA
    3.5. Simplificación de las normas del IVA para las pequeñas empresas
    3.6. El Comité mixto establecido por el Acuerdo entre la Unión Europea y Noruega en materia de cooperación administrativa, lucha contra el fraude y cobro de créditos en el ámbito del IVA
4. Impuestos Especiales
    4.1. Impuestos especiales sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas
    4.2. Impuestos especiales en lo que respecta al esfuerzo de defensa de la UE

5. Finantza-transakzioen gaineko zerga
    5.1. Alemaniaren txostena, finantza-transakzioen gaineko zergari dagozkion lanen egoerari buruzkoa
6. Administrazio-lankidetza
    6.1. Zerga-arloko jurisdikzio ez-kooperatiboei buruzko EBko zerrenda
    7. Arau-hausteetarako prozedurak
    7.1. Sarrera
    7.2. Epatze-gutunak
    7.3. Irizpen arrazoituak
    7.3. Artxibatutako gaiak
    7.4. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari igortzea
8. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak
9. Txostenak eta argitalpenak

"Azterlanak eta kolaborazioak" atala hiru artikuluk osatzen dute oraingoan. Gaurkotasun handiko obra batek irekitzen du atala: "Ekonomia Digitalaren tributazioa: irtenbide globalaren zain, alde bakarreko neurriak". Lanaren egileak: Bizkaiko Foru Aldundiko zergen inspektore-orde María Isabel Portillo Morales eta Zerga Politikako Zerbitzuko buru Gemma Martínez Bárbara.

ECOFINeko D-4 taldean parte hartzeak Fiskalitate Digitalaren inguruko prestakuntzan ematen dien jakinduriak argi eta garbi azaltzen du egileek pil-pilean dagoen gai horri horren argi eta adimentsu heltzea; gaia honako hau da: indarreko nazioarteko esparru fiskala berrikustea, bere printzipioak Ekonomia Digitala deiturikoak dakarren kasuistika berritzailera egokitzeko.

Nazioartean kezka handia dago fenomeno batengatik, alegia: lurralde jakin batean presentzia ekonomiko handia duten entitateek ez dute bertan zergarik ordaintzen, harekin lotura fisikorik ez dutelako eta, gainera, ordaintzen duten jurisdikzioetan, gutxiago ordaindu ohi dute negozio tradizionalak dituztenek baino. Kezka horretatik sortu dira ahaleginak, hasieran ELGAren barruan eta EBn geroago, digitalizatutako ekonomia berrian aplikatu behar den zerga-ordainketa optimoaren inguruko nazioarteko adostasunak lortzeko.

5. Impuesto sobre las Transacciones Financieras
    5.1. Informe de Alemania sobre el estado de los trabajos en relación con el impuesto sobre las transacciones financieras
6. Cooperación Administrativa
    6.1. Lista de la UE sobre jurisdicciones no cooperativas en materia fiscal
7. Procedimientos de Infracción
    7.1. Introducción
    7.2. Cartas de emplazamiento
    7.3. Dictámenes motivados
    7.3. Asuntos archivados
    7.4. Remisiones al Tribunal de Justicia de la UE
8. Sentencias del Tribunal de Justicia de la UE
9. Informes y Publicaciones

La Sección de "Estudios y Colaboraciones" se compone en esta ocasión de tres artículos. Abre la sección un trabajo de gran actualidad titulado "La tributación de la Economía Digital: medidas unilaterales a la espera de una solución global" que firman María Isabel Portillo Morales, Subinspectora de Tributos y Gemma Martínez Bárbara, Jefa del Servicio de Política Fiscal, ambas de la Hacienda Foral de Bizkaia.

El bagaje que les otorga su participación en el grupo D-4 del ECOFIN, en su formación dedicada a la Fiscalidad Digital, explica sin duda la claridad y el entendimiento con que las autoras tratan la cuestión, tan candente, de la revisión del marco fiscal internacional vigente para adecuar sus principios a la innovadora casuística que presenta la denominada Economía Digital.

Existe en el ámbito internacional una preocupación generalizada por el fenómeno por el cual entidades con alta presencia económica en un territorio determinado no tributan en él por no tener un nexo físico con el mismo y además, en las jurisdicciones en las que tributan lo hacen por lo general en niveles comparativamente inferiores al de la tributación de las entidades que mantienen modelos de negocio tradicionales. De esta preocupación nacen los esfuerzos en el seno de la OCDE primero y de la UE más tarde, por alcanzar consensos a nivel internacional sobre la tributación óptima que debe aplicarse a la nueva economía digitalizada.

Testuinguru horretan, artikulu honen egileek zehatz-mehatz aztertzen dituzte, lehenik, Europako Batzordeak 2018ko martxoan aurkeztu zituen bi proposamenak, ondoren izan dituzten eguneratzeekin batera: i) "Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita presentzia digital esanguratsua duten enpresen zergei buruzko araudia" eta ii) "Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, zerbitzu digitalen gaineko zergen sistema komunari buruz, zeinek zerbitzu digital jakin batzuk emateaen ondoriozko diru-sarrerak zergapetzen dituen"[1], biak bideratuta daude, lehena iraunkorki eta bigarrena epe motzean, zerga-formula berriak ezartzera, zeinen xedea baita aberastasuna zergapetzea, egungo zergapetze-moduak diskordantzia sortzen duelako balioa sortzen duten jarduerak gauzatzen diren lekuaren eta jardueron emaitzon gaineko eskumen fiskala duen lurraldearen artean. Izan ere, egileek uste dute EBko estatu kide guztien ekarpen bateratuak lagunduko duela EBn gai horren inguruko aurrerapenak bultzatzen.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari dagokionez, nahiz eta Europako Batzordea saiatu, irtenbide harmonizatu baterako proposamenarekin, merkatu bakarra zatitu eta lehia desitxuratu zezaketen neurri alde bakarrekoei aurre egiten, zenbait estatu kidek berehala aplikatzeko neurriak ezartzearen alde egin dute, nazioarteko adostasuna eraikitzeari itxaron gabe. Haien artean, Espainiako Gobernuak 2019ko urtarrilean aurkeztu zuen zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzko lege-proiektua. Bertan, Europako Batzordearen lehenengo proposamenaren xedapenaren funtsezko alderdiak jasotzen dira. Legegintza-ekimen hori legegintzaldia amaitu zenean iraungi zen, baina gero berriro izapidetzeari ekiteko asmoari buruzko adierazpenak egin dira. Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzko lege-proiektuaren inguruko azterketa

1 Argitaratutako azken bertsioan, 2019ko martxoaren 1ean kaleratu dena, proposamenari izena aldatu zaio, honatx berria: "Kontseiluaren zuzentarau-proposamena, publizitate digitalaren gaineko zergen sistema komunari buruz, zeinek publizitate digitalaren zerbitzuak ematearen ondoriozko diru-sarrerak zergapetzen dituen"

En este contexto, las autoras de este artículo analizan en detalle, en primer lugar, las dos propuestas que la Comisión Europea presentó en marzo de 2018, junto con las actualizaciones que en su caso han experimentado con posterioridad: i) la "Propuesta de Directiva del Consejo por la que se establecen normas relativas a la fiscalidad de las empresas con una presencia digital significativa" y ii) la "Propuesta de Directiva del Consejo relativa al sistema común del impuesto sobre los servicios digitales que grava los ingresos procedentes de la prestación de determinados servicios digitales"[1], ambas enfocadas, la primera con carácter de permanencia y la segunda en el corto plazo, a implementar nuevas fórmulas de imposición que tienen como objeto gravar una riqueza cuya vigente forma de tributación genera una discordancia entre el lugar en que se llevan a cabo las actividades que crean valor y el territorio que ostenta la competencia fiscal sobre los resultados de las mismas, apoyándose en la creencia de que una aportación conjunta por parte de todos los Estados miembros de la UE servirá para impulsar los avances en la materia a nivel global.

En relación con el Impuesto sobre determinados servicios digitales, si bien la Comisión Europea, con su propuesta de solución armonizada, trató de hacer frente a la adopción de medidas unilaterales que pudieran fragmentar el mercado único y falsear la competencia, sin embargo, determinados estados miembros han apostado por la puesta en marcha de medidas de aplicación inmediata sin esperar a que se construya el consenso internacional. Entre ellos, el gobierno de España presentó en enero de 2019 un Proyecto de Ley del Impuesto sobre Determinados Servicios Digitales cuyo contenido reproduce en los aspectos fundamentales lo dispuesto en la primera propuesta lanzada por la Comisión Europea. Esta iniciativa legislativa caducó como consecuencia de la conclusión de la legislatura, pero posteriormente se han sucedido declaraciones sobre la intención de volver a iniciar su tramitación. El referido Proyecto

1 En la última versión publicada, que ha visto la luz el 1 de marzo de 2019, la propuesta ha pasado a denominarse "Propuesta de Directiva del Consejo relativa al sistema común del impuesto sobre la publicidad digital que grava los ingresos procedentes de la prestación de servicios de publicidad digital".

eta ebaluazio zehatzak ere egin dira *Zergak* aldizkariaren zenbaki honetako lehen artikuluan, Batzordearen zuzentarau-proposamenarekiko aldeak nabarmentzen direlarik.

Kolaborazioa amaitzeko, zerga berri horrek EAEko lurralde historikoetako zerga-sistemetan izan dezakeen eragina aipatzen da. Horri buruz diote adostasuna eta ituntzea beharko dela zerga hori foru-lurraldeetako zerga-sistemetan txertatzeko, Ekonomia Itunaren bigarren xedapen gehigarrian ezartzen den moduan. Era berean, zerga berri honen inguruko eskumena (foru-aldundiena edo komuna) zehaztu beharko luketen lotuneak definitzeko zenbait gako adierazi dituzte egileek eta, azkenik, euren irizpidea eskaintzen dute lotune zehatzei buruz –arauzkoa, ordainarazpenei buruzkoa eta ikuskaritzari dagokiona–, euren iritziz, eskumen-banaketa arautu beharko bailukete.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako zergei buruzko foru-arau orokorrek aplikatzeko moduko arau batzuk jasotzen dituzte, premiamendu-prozedura batera gertatzen denerako ogasun publikoarekin zordunaren ondarearen aurka has daitezkeen beste betearazpen-prozedura batzuekin. Zehazki, zergak biltzeko premiamendu-prozedurak konkurtso-prozedurarekin bat egiten badu, jarraibideak zehazteko, konkurtsoari buruzko legeriara jo behar da, zergei buruzko arauek bidalita.

Hala ematen dio hasiera Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko teknikari Idoia Zapirain Torrecillak *Zergak* aldizkariaren zenbaki honen bigarren kolaborazioari, izenburu hau baitu: "Hartzekodunen konkurtsoaren deklarazioak zerga-bilketan duen eragina. Arestiko jurisprudentzia-ebazpenen azterketa".

Egileak adierazi duenez, Ogasun Publikoaren zordunaren konkurtso-deklarazioak zerga-bilketan eragina duenean jarraitu beharreko joko-arauak –zerga-arauaren eta konkurtso-arauaren arteko

de Ley del Impuesto sobre Determinados Servicios Digitales es también objeto de exhaustivo análisis y valoración en el primer artículo de este número de Zergak, advirtiendo las diferencias respecto a la propuesta de directiva de la Comisión.

Termina la colaboración con una referencia a la incidencia de este nuevo impuesto en los sistemas tributarios de los Territorios Históricos del País Vasco. Al respecto se apunta que para la incorporación del impuesto a los sistemas tributarios forales se requerirá su concertación, según lo establecido en la Disposición Adicional Segunda del Concierto Económico. Asimismo, las autoras señalan algunas claves para la definición de los puntos de conexión que deben determinar la competencia foral o común en este nuevo impuesto y aportan finalmente su propio criterio sobre los puntos de conexión concretos -normativo, exaccionador e inspector- que a su juicio deberían regular su distribución competencial.

Las Normas Forales Generales Tributarias de los tres Territorios Históricos del País Vasco recogen unas reglas aplicables en los casos de concurrencia del procedimiento de apremio con otros procedimientos de ejecución que puedan iniciarse frente al patrimonio del deudor con la Hacienda Pública. En concreto, en el caso de que el procedimiento de apremio para la recaudación de los tributos concurra con un procedimiento concursal, la determinación de cuales van a ser las pautas a seguir exige acudir a lo dispuesto en la legislación concursal, a la que se remite la normativa tributaria.

De este modo introduce Idoia Zapirain Torrecilla, Técnico del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la segunda colaboración de este número de Zergak, titulada "Efectos de la declaración de concurso de acreedores en el ámbito de la recaudación tributaria. Análisis de resoluciones jurisprudenciales recientes".

Como señala la autora, las reglas de juego -definidas por la combinación de la norma tributaria y la norma concursal- que se han de seguir en el supuesto de que la recaudación tributaria resulte

konbinazioaren arabera definitzen dira– jurisprudentziaren aztergaiak izan dira denboran zehar, bai merkataritza-jurisdikzioan eta bai administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Bere artikuluan, joko-arauok argitzen laguntzen duten hainbat ebazpen judizial hautatu ditu, eta bereziki honako gai hauek zehaztu dira bertan: i) betearazteko administrazio-prozedurak eta lehentasunez kobratzeko prozedurak jarraitzeko aukera; ii) premiamendu-probidentziak emateko aukera, masaren kontrako kredituei dagokienez, iii) administrazioan zerga-erantzukizuna deribatzeko prozedura hasteko aukera, hartzekodunen konkurtsoa indarrean dagoenean eta iv) ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura zuzenbide publikoko kreditura heltzeko aukera.

Juan Calvo Vérgez irakasleak —Extremadurako Unibertsitateko finantza eta tributu-zuzenbideko irakasle titularra bera, katedraduna izateko kreditatua— "Azterlanak eta Kolaborazioak" atala ixten duen lanean azpimarratu duenez, *"hain zuzen ere, aipatutako betebeharra (gastu publikoei eusten laguntzeko konstituzio-betebeharra) betetzeko beharrak justifikatzen du zerga-zuzenbide zehatzailea sortzea eta aplikatzea, bai arlo penalean, bai administrazio-alor hertsian, beraz, esan daiteke araubide-dualtasuna existitzen dela, bat datozen oinarrizko printzipio juridiko batzuekin.* "

"Doloak delitu fiskalaren taxutzean duen eragina" izenburupeko bere kolaborazioaren gogoetetan, bikain ikertzen ditu iruzurra aztertzeko ikuspegi biak, objektiboa (arauaren aurkakotasuna) eta subjektiboa (asmo-ikuspegia). Ondoren, honako hauek aztertzen ditu: erruduntasunak zerga-delituan duen eragina, delitu fiskala dolo-delitutzat jotzea, doloaren modalitate desberdinak eta, azkenik, akatsa, erantzukizun fiskaletik salbuesteko kausa gisa.

afectada por la declaración de concurso del deudor a la Hacienda Pública, vienen siendo a lo largo del tiempo objeto de análisis jurisprudencial, tanto en sede mercantil como en el ámbito de la jurisdicción contencioso-administrativa.

En su artículo selecciona varias resoluciones judiciales que contribuyen a clarificar dichas reglas de juego, en concreto dictaminando sobre las siguientes cuestiones: i) la posibilidad de continuación de procedimientos administrativos de ejecución y prioridad de cobro, ii) la posibilidad de dictar providencia de apremio en relación con los créditos contra la masa, iii) la posibilidad de iniciar un procedimiento de derivación de responsabilidad tributaria en sede administrativa vigente el concurso de acreedores y iv) la posibilidad de que el beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho alcance al crédito de derecho público.

Apunta el profesor Juan Calvo Vérgez, Profesor Titular (acreditado para Catedrático) de Derecho Financiero y Tributario en la Universidad de Extremadura, en el trabajo que cierra la sección de "Estudios y Colaboraciones" que *"Es precisamente la necesidad existente de preservar el cumplimiento del citado deber (el deber constitucional de contribución al sostenimiento de los gastos públicos) la que justifica el nacimiento y la aplicación del Derecho Tributario Sancionador, tanto en su vertiente penal como en su ámbito estrictamente administrativo, pudiendo aludir así a la existencia de una dualidad de regímenes, con una presencia de una serie de principios jurídicos básicos de carácter coincidente.*"

En las consideraciones de su colaboración, que titula "La trascendencia del dolo en la configuración del delito fiscal", indaga de forma brillante sobre la dualidad de perspectivas, objetiva (contrariedad a la norma) y subjetiva (intencional), con la que puede analizarse la noción de defraudación, para a continuación disertar sucesivamente sobre la incidencia de la culpabilidad en el delito fiscal, sobre la consideración del delito fiscal como delito doloso, sobre las distintas modalidades que puede revestir el dolo y, por último, sobre la concurrencia del error como causa de exclusión de la responsabilidad fiscal.

«Erreferentziak» atala bost azpiataletan dago egituratuta aldizkariaren ale honetan:

1) Lehenengoan, «Intereseko dokumentuan» izenekoan, hiru dokumentu-arlo aukeratu dira: aipatuak ditugu jada editorial honen hasieran, eta aldizkari honetan bertan agertzen diren esteka edo loturen bidez eskura daitezke.

i) Lehenengoa, "Etxebizitzaren politika fiskalaren orientazio berria" izeneko txostena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Legebiltzarrera bidalitako bertsioan, aurretik EZKOn aurkeztu zena.

ii) Bigarrenean, zerga-hezkuntzaren baterako proiektuari buruzko informazio garrantzitsuena dago (editorial honen sarreran aipatu dugu proiektu hori). Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunera bideratzen duen esteka baten bidez dago hartarako sarbidea, eta bertan, halaber, proiektuan parte hartzen duten beste erakunde batzuen webgunean dauden dokumentu interesgarri batzuetara bideratzen gaitu (foru-aldundiek egindako unitate didaktikoak, adibidez).

iii) Hirugarren dokumentu-alorra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko hitzarmena, fakturazio- eta kobrantza-sistemak kontrolatzeko tresnak aztertzeko eta ezartzeko Ticketbai/Ticketsi-Bai proiektua garatzekoa, 2019ko maiatzaren 29an sinatuta.

2) Bigarren azpiatala, «EZKO kontsultak» izenekoa, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak txostena edo irizpena eman dien kontsultak, tributuen alorrekoak, biltzeko gunea da, maiatzaren 30eko 3/1989 Legeak, Zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzkoak,

La sección de "Referencias" se compone en este número de la revista de cinco apartados:

1) En el primero de ellos, "Documentos de interés" se han seleccionado tres áreas documentales, a las que se ha hecho referencia en las líneas introductorias de este editorial y a las que se accederá en todos los casos mediante los enlaces facilitados en la propia revista.

i) La primera de ellas, el Informe sobre "Nueva orientación de la política fiscal de vivienda", en la versión remitida al Parlamento Vasco por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, que previamente había sido presentado en el OCTE.

ii) La segunda contiene la información más relevante relativa al proyecto conjunto de educación tributaria, al que también se ha hecho referencia en la parte introductoria de este editorial. Se accede a ella a través de un enlace que dirige a la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, desde el cual se facilita asimismo la redirección a documentos de interés alojados en la web de otras de las instituciones que participan en el proyecto, como las unidades didácticas elaboradas por las Diputaciones Forales.

iii) La tercera área documental, el Convenio entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Hacienda Tributaria de Navarra y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el desarrollo de un proyecto consistente en el estudio e implantación de instrumentos de control de los sistemas de facturación y cobro - proyecto TicketBAI / TicketSI-BAI, suscrito el 29 de mayo de 2019.

2) El segundo apartado, el de "Consultas OCTE", abre un espacio destinado a recoger consultas tributarias que han sido informadas por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, según dispone el artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal:

14. artikuluan xedatutakoari jarraituz: «Lurralde historikoetako zerga-administrazioek darabiltzaten irizpideen koordinazioa lortzeari begira, kontsulta lotesleak Zerga Koordinaziorako Organoaren txostenaren ondoren argituko dira (...)».

*Zergak* aldizkariaren ale honetan zazpi kontsulta hautatu dira, askotarikoak. Kontsulta horien erantzuna oso-osorik jaso da, eta honako gai hauek jorratu dira:

| Kontsultaren gaia |
|---|
| SZ-BAT-EGITEEN ARAUBIDE BEREZIA. - Enpresa egituratzeko eragiketa jakin batzuetarako, SZn aurreikusitako araubide berezia aplikatzeko arrazoi ekonomiko baliagarriak zehaztea, honetarako eragiketei dagokienez:<br>- holding sozietatea sortzea, kontsulta egin duen sozietatearen partaidetzen titularra, zeinak partaidetzon kudeaketaren eta sozietate produktiboaren kudeaketa- eta administrazio-zerbitzuen ardura izango lukeen; holding sozietateari, era berean, kontsulta egin duen enpresak jarduera egiteko erabiltzen duen higiezina eskualdatzen zaio.<br>- gero, holding sozietatea osorik zatitu nahi da, bi enpresa berri sortzeko: lehenengoak kontsulta egin duen sozietatearen partaidetzen titulartasuna edukiko luke, eta balioen kudeaketaz eta enpresa produktiboaren administrazio-kudeaketaz arduratuko litzateke; eta bigarren sozietate sortu berriari higiezina (ondarea) esleituko litzaioke, eta, ondorioz, ondasun-izaera izango luke, higiezinen errentamenduan eta ustiapenean jarduteko. |
| PFEZ. - PFEZan zer tratamendu duten kalte-ordain batzuek, hots, kontsulta egin duen kooperatibak langile bazkideei lan-jarduera borondatez uzteko pizgarriak emateko plan baten barruan kobratutakoek. PFEZaren araudian arautuko integrazio ehunekoak aplikatzeko aukera. |
| PFEZ. - Ebazpen judizialak betearaztean ordaindutako lanaren errendimenduen aldi baterako egoztea PFEZan. |
| BEZa-ZGZB. - Autokarabana eskuratzea ezintasuna duen pertsona garraiatzeko:<br>- BEZ. % 4ko zerga-tasa murriztua aplikatzen zaio desgaitasuna duten eta gurpil-aulkia darabilten pertsonen edo mugikortasun urria dutenen ohiko garraioari. Beraz, garraioa ohikoa izatea erabakigarria da: behin eta berriz eta etengabe garraiatzen bada, baina ez oso lantzean behin egiten bada.<br>- ZGZB. Desgaitasuna duenaren izenean dagoen autokarabaren lehen matrikulazioa zergatik |

*"A los efectos de conseguir la coordinación de los criterios que se sustenten por las Administraciones tributarias de los Territorios Históricos, las consultas vinculantes se evacuarán previo informe del Órgano de Coordinación Tributaria …".*

En este número de Zergak se han seleccionado siete consultas, de índole diversa, cuya respuesta se reproduce íntegramente, en las que se tratan las siguientes cuestiones:

| Asunto objeto de la consulta |
|---|
| IS-RÉGIMEN ESPECIAL FUSIONES. – Determinación de la existencia de motivo económico válido a efectos de la aplicación del régimen especial previsto en el IS para determinadas operaciones de reestructuración empresarial, en relación con una operación mediante la cual:<br>- se crea una sociedad holding, titular de las participaciones de la sociedad consultante que se encargaría de la gestión de las mismas, así como de los servicios de gestión y administración de la sociedad productiva, sociedad holding a la que, asimismo, se traspasa el inmueble en el que la consultante desarrolla su actividad.<br>- posteriormente se pretende una operación de escisión total de la sociedad holding, creando dos nuevas sociedades: la primera de ellas ostentaría la titularidad de las participaciones de la sociedad consultante, consistiendo su actividad en la gestión de valores y gestiones administrativas de la sociedad productiva y a la segunda sociedad de nueva creación, se le adjudicaría el inmueble, ostentando el carácter de patrimonial y dedicándose al arrendamiento y explotación de inmuebles. |
| IRPF. – Tratamiento en el IRPF de las indemnizaciones cobradas en el marco de un plan de incentivación del cese voluntario de la actividad laboral aplicable a sus socios trabajadores por parte de la cooperativa consultante. Posibilidad de aplicación de los porcentajes de integración regulados en la normativa del IRPF. |
| IRPF. – Imputación temporal en el IRPF de los rendimientos del trabajo abonados en ejecución de resoluciones judiciales. |
| IVA-IEDMT. – Adquisición de una autocaravana para el transporte de persona con discapacidad:<br>- IVA. La aplicación del tipo impositivo reducido del 4% está prevista para el transporte habitual de las personas con minusvalía en silla de ruedas o con movilidad reducida. Es por tanto determinante la habitualidad del transporte, entendiéndose ésta si el transporte se produce de manera repetida y continuada, pero no si se realiza de manera extraordinaria.<br>- IEDMT. Resulta exenta del Impuesto la primera matriculación definitiva de una autocaravana a |

| | |
|---|---|
| salbuetsita dago eta betiere bere erabilera esklusiboarentzat bada eta gutxienez lau urte igaro badira desgaitasuna duenak salbuespen horri eutsita beste ibilgailu bat matrikulatu zuenetik. | nombre de la persona minusválida y siempre que sea para su uso exclusivo y hayan transcurrido al menos cuatro años desde la matriculación por parte de la persona minusválida de otro vehículo acogiéndose a esta exención. |
| BEZ. – Zergaren pean ote dauden sozietate publiko batek emandako zenbait zerbitzu, mota askotakoak, sozietate horrek estaldura ematen baitie informatika- eta telekomunikazio-sistemen beharrizan orokorrei. Noraino heltzen den BEZari ez atxikitzearen zabalpena (BEZaren erregulazioari gehitu zaio, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez), administrazio publikoaren erabateko partaidetza duten sozietateen arteko zerbitzu-prestazioei buruzkoa. | IVA. – Sujeción al impuesto de una tipología diversa de servicios prestados por una sociedad pública que da cobertura a las necesidades generales en materia de sistemas de información y de telecomunicaciones. Alcance de la ampliación de la no sujeción al IVA (incorporada a la regulación del IVA mediante la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público), relativa a las prestaciones de servicios entre sociedades íntegramente participadas por la Admón. pública. |
| BEZ. Administrazio publikoen betebeharrak Berehalako Informazio Horniduraren inguruan.<br><br>Kontsulta egiten duen administrazio publikoak erregistro-liburuak eraman behar ditu foru-aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta enpresa- edo lanbide-jarduerei dagozkien fakturazioen erregistroen berri emango du hornidura elektronikoaren bidez, bai eta enpresa- edo lanbide-jardueretatik kanpo egiten dituen ondasun eta zerbitzuen erosketen berri ere. Gainera, hirugarrenekin egindako eragiketen informazio-deklarazioa aurkeztu behar du, 347. eredua, aurrekontu orokorren kontura ematen dituen edo aipatu administrazio publikoan integratuta ez dauden entitate edo erakundeen kontura kudeatzen dituzten dirulaguntzengatik, sorospenengatik edo laguntzengatik. | IVA. – Obligaciones para las administraciones públicas en relación con el Suministro Inmediato de Información (SII).<br><br>La Administración Pública consultante, obligada a llevar los libros-registro a través de la sede electrónica de Diputación Foral, informará mediante el suministro electrónico de los registros de facturación correspondientes a las actividades empresariales o profesionales así como de las adquisiciones en general de bienes y servicios que efectúe al margen de las actividades empresariales o profesionales.<br><br>También tendrá la obligación de presentar la declaración informativa de operaciones con terceras personas, modelo 347, por las subvenciones, auxilios o ayudas que conceda con cargo a sus presupuestos generales o que gestionen por cuenta de entidades u organismos no integrados en dicha Administración pública. |
| BEZa. - Zer tratamendu fiskal duten, BEZaren ondorioetarako, kontsulta-egileak –pertsona fisikoa– egindako obrek, bere jabetzako ondasun higiezinaren birgaitze integralari dagokionez; hasieran, higiezin hori erabilera pribaturako da, baina gero, obrak amaitu aurretik, birgaikuntzaren ondoren aurreikusitako bi etxeetako baten xedea aldatzea eta saltzea erabaki da, salmenta-kontratu pribatua formalizatuta eta aurrerakin bat jasota. | IVA. – Tratamiento fiscal a efectos del IVA de las ejecuciones de obra realizadas por el consultante, persona física, en relación con la rehabilitación integral de un inmueble de su propiedad, en principio para uso particular, pero que posteriormente y antes de finalizar su ejecución, se decide cambiar el destino de una de las dos viviendas previstas tras la rehabilitación y destinarla a la venta, formalizándose un contrato privado de venta y percibiendo un pago anticipado. |

3) Ekonomia Itunaren III. kapituluko 2. atalean Araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordeari esleitutako eginkizunen artean dago «Ekonomia Itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea». Beraz, kontsulta horiek Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunek adostutako erabakien bidez ebazten dira, Batzordean alde biak ordezkatuta baitaude. Bada, Ekonomia Itunaren 63. artikuluak dioenez, Araugintza Koordinatzeko eta Ebaluatzeko Batzordea Estatuko Administrazioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldun-

3) Entre las funciones atribuidas a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa regulada en la Sección 2ª del Capítulo III del Concierto Económico se contempla la de *"Resolver las consultas que se planteen sobre la aplicación de los puntos de conexión contenidos en el presente Concierto Económico"*. Este tipo de consultas son por tanto resueltas de manera consensuada entre la Administración del Estado y las instituciones competentes del País Vasco, al estar ambas partes representadas en esta Comisión. Tal como se regula en el artículo 63 del Concierto, componen la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa

dien ordezkariek osatzen dute; eta kontsulta horiek ebazteko prozedura Itunaren 64.b) artikulua dago araututa.

2019an igaro den epean, izaera horretako zenbait kontsulta egin dira eta administrazioek kontsulton inguruko erantzun- eta ohar-proposamenak helarazi dituzte. Kontsulten artean, i) kasuren batean irekita dago izapidetzea, eta akordioa lor daiteke oraindik, ii) baina beste kasu batzuetan, ordea, desadostasuna egiaztatu eta Arbitraje Batzordeari helarazi diote desadostasun hori eraginpeko administrazioek, eta organo horri dagokio, orain, gatazka ebaztea, eta iii) bestetzuetan, estatuko administrazioarekin adostu da zelan erantzun kontsultok.

Kontsulta horiei, adostasunaren xede izan diren kontsultei, dagokienez, "Erreferentziak" atal barruko azpiatal honetan Ekonomia Itunaren lotuneen aplikazioari buruz egindako bi kontsultari emandako ebazpenen testuak daude jasota, horietan zehazki eragindako agenteen nortasun-datuak ezabatuta. Kontsultak honako gai hauei buruzkoak dira:

| Kontsultaren gaia |
|---|
| PFEZ - atzerrian egindako lanengatiko salbuespena - atxikipenak. - Lurralde erkidean egoitza duen enpresa bati atxikitako langilea, enpresak zerbitzuak batez ere nazioartean ematen dituenean:<br>- Atzerrian benetan egindako lanengatik jasotako lan-errendimenduei dagokien PFEZ-salbuespena aplikatuko da, baldin eta erantzunean aztertutako eskakizun guztiak betetzen badira.<br>- Ekonomia Ituaren 7. Bat artikuluan xedatutakoa aplikatuta, enpresak sartu beharko dizkio atxikipenak langilearen zerbitzuak emateko lekuaren arabera dagokion administrazioari, kontuan hartuta, zerbitzuak atzerrian ematen badira edo lana edo zerbitzuak lurralde komunean zein EAEko lurraldean egiten badira, bi kasuetan, uste izango dela langilea adskribatuta dagoen lantokia kokatzen den lurraldean egin direla. |

representantes de la Administración del Estado, del Gobierno Vasco y de las tres Diputaciones Forales y el procedimiento para la resolución de estas consultas viene regulado en el artículo 64, letra b) del Concierto.

Durante el periodo transcurrido de 2019 se han formulado algunas consultas de esta naturaleza y las administraciones se han trasladado propuestas de respuesta y observaciones respecto a dichas consultas. De entre estas consultas, i) en algún caso se encuentra abierta su tramitación y aún es factible el acuerdo, ii) en otros, constatado el desacuerdo, se ha dado traslado del mismo a la Junta Arbitral, por parte de alguna de las administraciones concernidas y deberá ser ahora este órgano el encargado de resolver el conflicto y iii) en algunos otros casos se ha acordado con la Administración del Estado el texto de contestación a las consultas planteadas.

En relación con estas últimas, las consultas que han sido objeto de acuerdo, en este apartado de la sección de "Referencias" se incluye el texto de la resolución de tres consultas planteadas sobre la aplicación de puntos de conexión contenidos en el Concierto, una vez eliminados los caracteres identificativos de los agentes concretamente afectados en ellas. En concreto, las consultas versan sobre las siguientes cuestiones:

| Asunto objeto de la consulta |
|---|
| IRPF - exención trabajos prestados en el extranjero - retenciones. – Trabajador adscrito a una empresa domiciliada en territorio común que presta sus servicios principalmente en el ámbito internacional:<br>- La aplicación de la exención en el IRPF relativa a los rendimientos del trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero dependerá del cumplimiento de todos los requisitos que se analizan en la respuesta.<br>- Por aplicación de lo establecido en el artículo 7.Uno del Concierto, las retenciones deberán ingresarse por la empresa a la administración que corresponda según el lugar de prestación de los servicios del trabajador teniendo en cuenta que si los servicios son prestados en el extranjero o si los trabajos o servicios se desarrollan tanto en territorio común como en territorio vasco, en ambos casos, se entenderán prestados en el territorio donde se ubica el centro de trabajo de adscripción de la persona trabajadora. |

PFEZ–BEZ. - PFEZaren eta BEZaren ordainarazpen eskumena duen administrazioa, foru lurraldean erroldatutako pertsona fisikoak eragiketak (10 milioi euro baino gutxiagokoak) egiten baditu foru-lurraldean eta lurralde komunean.

PFEZ–BEZ. - PFEZaren eta BEZaren ordainarazpen eskumena duen administrazioa, baldin eta pertsona fisikoa bizi bada lurralde erkidean, baina aurreikusten badu foru-lurraldean bizitzea eta bere titulartasuneko farmazia-bulegoa transmititzea. Farmazia-bulegoko transmisioa BEZaren pean dagoen eta transmisio horren zerga-tratamendua PFEZan.

4) Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalak Arbitraje Batzordearen (EIAB) osaera, eginkizunak eta akordioen erregimena arautzen ditu. Batzorde horrek Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortzen diren zergen arloko gatazkak ebaztea du helburu. *Zergak* aldizkariaren zenbaki honetan ez da sartu “Erreferentziak” ataleko ohiko apartatu bat, alegia: “Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpenak”. Kontuan izan behar da arbitraje-organoa eraginkortasunik gabe geratu dela gatazkak ebazteko, aldi baterako, 2018ko urriaren 17ko bileraz geroztik, arbitro bat, Isaac Merino jauna, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salako magistratu izendatu dutelako eta, horrenbestez, EIABeko kidearen eginkizunean baja hartu duelako. Aldizkariaren aurreko zenbakian adierazi genuen bezala, orain Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari (EIBM) dagokio lanpostu hutsa betetzeko pertsona izendatzea eta EIAB berriro aktibatzea, eta hori lehentasunezko, eta premiazko helburua izan beharko litzateke aipatutako EIBMn parte hartzen dugun administrazioentzat.

5) Azkenik “Estatistikak” atala dago, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Sarrera Kudeaketa eta Zerga Bilketaren Azterketa Zerbitzuko teknikari Igor Guinea Palaciosek egina. Hau biltzen du Zergak aldizkariaren ale honetan: i) foru-aldundiek itundutako tributuen bilketari buruzko informazioa, 2018. urtearen itxierari dagokiona (erregistratutako diru-bilketa 14.891,5 milioi euro da, eta kopuru horrek % 3,5ko igoera dakar 2017an kontabilizatutako zerga-bilketarekin alderatuta; halere, igoera nabarmen handiagoa izango zen, % 8 ingurukoa, behin zuzenduta

IRPF-IVA. – Administración competente para la exacción del IRPF y el IVA en el caso de una persona física empadronada en territorio foral que realiza operaciones (por importe inferior a 10 millones de euros) en ambos territorios, común y foral.

IRPF-IVA. – Administración competente para la exacción del IRPF y el IVA en relación con persona física residente en territorio común que prevé trasladar su domicilio a territorio foral y transmitir una oficina de farmacia de la que es titular. Sujeción al IVA de la operación de transmisión de la oficina de farmacia y tratamiento tributario de dicha operación en el IRPF.

4) El Capítulo III del Concierto Económico en su sección 3ª regula la composición, funciones y el régimen de los acuerdos de la Junta Arbitral (JACE), órgano que tiene atribuida la misión de resolver los conflictos de naturaleza tributaria planteados entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales. En este número de Zergak, no se incluye el habitual apartado de la sección “Referencias” destinado a informar sobre las “Resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico”. El motivo es que el órgano arbitral, desde finales de 2018, ha quedado transitoriamente inoperativo para la adopción de acuerdos de resolución de conflictos, como consecuencia de la designación de Isaac Merino, uno de sus árbitros, como magistrado de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Supremo, y la consecuente baja en su función de vocal de la JACE. Como apuntábamos en el número anterior de la revista, corresponde ahora a la Comisión Mixta del Concierto Económico (CMCE) acordar el nombramiento de una nueva persona para cubrir la vacante y reactivar la JACE, y éste debe ser un objetivo prioritario y urgente para las administraciones que participamos en la referida CMCE.

5) Por último, el apartado “Estadísticas” elaborado por Igor Guinea Palacios, técnico del Servicio de Gestión de Ingresos y Análisis Recaudatorio en el Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, incluye en este número de Zergak: i) información sobre la recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales correspondiente al cierre de 2018 (14.891,5 millones de euros de recaudación registrada que supone un incremento del 3,5% sobre la recaudación contabilizada en 2017, si bien el incremento habría sido sensiblemente superior, situándose en

2017/05/17 EKBMren erabakiek 2017ko zerga-bilketan izan zuten eragina; haien bidez, 2008-2016 aldirako kupoak erregularizatu ziren); eta ii) 2019ko lehen lauhilekoan itundutako tributuen zerga-bilketaren bilakaerari buruzko informazioa; une honetara arte igoera-tasa, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 2,9 da, eta urteko lehen hilabeteetan zeharkako zergen bilketaren egonkortasunari esker mantendu da nagusiki, batez ere BEZa (+46 milioi euro) eta Hidrokarburoen gaineko Zerga (+44 milioi euro). Estatuarekiko doikuntzak kenduta, foru-aldundiek eurek kudeatutako zerga-bilketak hazkunde-tasa apalagoa du,% 1,6, 2018ko urtarrila-apirila epeari dagokionez

Aldizkariaren bukaerako «Zerga Arauak» atalean, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerga Administrazioko Zuzendaritzak egindako hileko buletinetan sartzeko helbidea daukazue. Hilabetekari horietan batzen da foru-aldundiek argitaratutako zerga-araudiaren laburpena (ALHAO, BAO eta GAO), bai eta Eusko Jaurlaritzak (EHAA), Nafarroako Foru Erkidegoak (NAO) eta Estatuak (BOE) argitaratutakoen laburpena ere.

Foru-tributuen gaiari buruzko informazio baliagarria osatzeko interesa duten pertsonak gonbidatzen ditugu EAEko hiru lurralde historikoen webguneetan xede horretarako jarritako ataletan (www.araba.eus, www.bizkaia.eus, www.gipuzkoa.eus) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren webgunean sartzera (www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/ogasun-finantza-saila/hasiera/). Horien bidez sar daiteke hiru lurralde historikoen zerga-araudiaren bertsio integratua eskaintzen duen «Foru Zerga Kodea» aplikazioan. Ekonomia Ituna bultzatzeko eta haren zabalkundean jarduteko Ad Concordiam elkarteak sustatutako webgunean sartzea aholkatzen dugu, www.conciertoeconomico.org, bai eta Ekonomia Itunaren eta Foru Ogasunen Dokumentazio Agiritegiak argitaratutako Ituna buletin elektronikoan ere, honako helbide honetan: http://www.ehu.es/ituna/index.html eta Pedro Luis Uriartek sustatutako Ekonomia Itunaren inguruko dibul-

el 8%, una vez corregido el efecto que sobre la recaudación de 2017 tuvieron los acuerdos de la CMCE de 17/05/2017, por los que se regularizaron los cupos del periodo 2008-2016) y ii) información sobre la evolución de la recaudación por tributos concertados en el primer cuatrimestre de 2019, que registra por el momento una tasa de crecimiento respecto al mismo periodo del año anterior del 2,9%, sostenida principalmente por la consistencia de la recaudación de los impuestos indirectos en los primeros meses del año, en especial el IVA (+46 millones de euros) y el Impuesto sobre Hidrocarburos (+44 millones de euros). Descontados los ajustes con el Estado, la recaudación de gestión propia de las Diputaciones Forales registra una tasa de crecimiento un poco más débil, del 1,6% respecto al periodo enero-abril de 2018.

En la sección de cierre de la revista, "Normativa Tributaria" se indica la dirección de acceso a los boletines mensuales elaborados por la Dirección de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco, en los que se recoge un compendio de la normativa tributaria publicada por las Diputaciones Forales (BOTHA, BOB y BOG), el Gobierno Vasco (BOPV), la Comunidad Foral de Navarra (BON) y el Estado (BOE).

Invitamos a las personas interesadas en completar la información útil sobre materia tributaria foral, a que accedan a los espacios destinados a este fin en las propias páginas web de cada uno de los tres territorios históricos de la CAPV (www.araba.eus, www.bizkaia.eus, www.gipuzkoa.eus) y en la página web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco (www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-hacienda-economia/), desde la que se puede acceder a la aplicación "Código Fiscal Foral" que ofrece una versión integrada de la normativa tributaria de los tres territorios históricos. Asimismo, para el conocimiento y la profundización en los temas relacionados con el Concierto Económico, aconsejamos el acceso a la web promovida por la asociación Ad Concordiam para la Promoción y Difusión del Concierto Económico, www.conciertoeconomico.org, al Boletín Electrónico Ituna editado por el Centro de Documentación del Concierto

gaziozko webgunea: Egileak berak egindako *El Concierto Económico. Una visión personal* izeneko lana hartzen duena (www.elconciertoeconomico.com). Obra bereziki gomendagarria da Ituna ezagutu nahi dutenentzat. Eta oso baliagarria izango da obra ezagutzen duten baina haren alderdi jakin batzuetan sakondu nahi dutenentzat ere. Ikuspegi didaktikoa eta irakurterraza du ezaugarri Itunari lehendabizikoz heltzen diotenentzat, eta barnean hartzen duen material zabalak irakurleari erakunde honen gaineko edozein zalantza argitzen lagunduko dio.

Económico y las Haciendas Forales accesible en la dirección http://www.ehu.es/ituna/index_es.html y a la página web promovida por Pedro Luis Uriarte, divulgativa del Concierto, que incorpora su obra "El Concierto Económico. Una visión personal" www.elconciertoeconomico.com. Se trata de una obra especialmente recomendable para quienes quieran introducirse en el conocimiento del Concierto, pero también será útil para quienes ya lo conocen y quieren profundizar en aspectos concretos del mismo. Se caracteriza por su enfoque didáctico y de fácil acceso para quienes descubren el Concierto por primera vez, pero también por el extenso y completo material que incorpora y que seguro podrá satisfacer cualquier inquietud del lector sobre esta Institución.

Azkenik, gogoratu behar dugu Ekonomia Ituna eta Euskadiko Kupoa zehazteko metodologia hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) zabaldu dela Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunearen estekaren bidez, http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/es_def/adjuntos/CE%20(texto%20consolidado).pdf , Itunari buruzko terminoen glosario batez osatua, ingelesezko azalpen didaktiko batekin, eta terminoen euskarazko eta gaztelaniazko baliokide terminologikoekin. Hiru hizkuntzako bertsioa EZKOren ekimenez landu da, erakunde-lankidetza estuko testuinguruan garatu da, eta, hizkuntzaren alorreko adituez gain, tributu-zuzenbide foraleko adituek ere hartu dute parte. Nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak lan zehatz eta arduratsua egin duela, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbideko doktore eta Finantza eta Tributu Zuzenbideko irakasle titular Alberto Atxabal Radarekin lankidetzan —tributu-alorreko aditu ezaguna eta Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeko kidea, batzorde hori sortu zenez geroztik—, eta emaitza izan da bi testuen –Itunaren eta Kupoaren– euskarazko bertsio harmonizatu, kohesionatu eta eguneratu bat, aintzat hartu dituena bai 2017ko lege-erreformak, bai euskararen alorreko azken aurrerapen terminologikoak.

Por último, recordamos la puesta en difusión –a través del siguiente enlace en la web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/octe/es_def/adjuntos/CE%20(texto%20consolidado).pdf- de la versión trilingüe, en euskera, castellano e inglés, del Concierto Económico y la Metodología de señalamiento del Cupo, complementada por el Glosario de términos sobre el Concierto que incluye una explicación didáctica en inglés así como sus equivalencias terminológicas en euskera y en castellano. Para la elaboración de esta versión trilingüe, desarrollada a iniciativa del OCTE en el marco de una estrecha colaboración institucional, se ha contado con la participación de expertos tanto en el campo de la lingüística, como del ámbito del derecho tributario foral. Es destacable la labor rigurosa y concienzuda del Servicio Oficial de Traductores del Gobierno Vasco, en colaboración con el Doctor en Derecho y Profesor Titular de Derecho Financiero y Tributario de la Universidad de Deusto, Alberto Atxabal Rada, experto reconocido en materia tributaria y miembro de la Comisión de Terminología del Consejo Asesor del Euskera desde su creación, para elaborar una versión en euskera de ambos textos, Concierto y Cupo, armonizada, cohesionada y actualizada, tanto a las reformas legales de 2017 como a los últimos avances terminológicos de la lengua vasca.

Bestalde, testuen ingelesezko bertsioak –funtsezkoa testuak nazioartean zabaltzeko– egi-

Por su parte, la autoría de la versión de los textos en inglés, fundamental para su divulgación

le du Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Politikako Zerbitzuko buru Gemma Martínez Bárbara, gai horretan esperientzia luzea eta aitortua duen pertsona; izan ere, aditua da bi alor horietan, ingeleseko hizkuntzalaritzan eta tributu-zuzenbide foralean. Ekonomia Itunaren eta Kupoa zehazteko metodologiaren testuen ingelesezko bertsioa eguneratzeaz gain, Ekonomia Itunari buruzko terminoen glosarioa ere sortu du, zeinak, beste elementu batzuen artean, termino horien ingelesezko azalpen didaktikoa eta euskarazko eta gaztelaniazko baliokideak hartuko baititu. Glosarioa testu eleanitzekin batera dago, irakurketa eta ulermena errazteko tresna erabilgarria gisa.

exterior, corresponde a Gemma Martínez Bárbara, Jefa del Servicio de Política Fiscal de la Hacienda Foral de Bizkaia y persona de amplia y reconocida experiencia en la materia, en la que concurre su competencia en las dos vertientes, la de lingüística en inglés y la de derecho tributario foral. Además de encargarse de la actualización de la versión en inglés de los textos del Concierto y de la Metodología de señalamiento del Cupo, ella es la autora del glosario de términos sobre el Concierto Económico que entre otros elementos incluye una explicación didáctica de dichos términos en inglés así como sus equivalencias terminológicas en euskera y en castellano. Dicho glosario acompaña a los textos en trilingüe como herramienta útil de apoyo a su lectura y comprensión.